EUZKEL -- ATALA

ANDOAIN

ORRI BELTZA

—Done baten antzera ikurton deunak artuta jaunaganatu zan lengo larunbat goizian "Buruntzagañ"-en anai Fernandez Usandizaga't. Augustin. Bere obiratze ta elizkizunetara, oste asko bildu zan; laguntzen diyegu atsekabian bere sendiyari, eta batez ere bere anai Pantzezkari.

ONGI BIZI DIRANAK

—Sevilla eta Barcelonako erakusketa oyek ikustera juan da gure lagun P. Alkain't. Jon. Baita ere egun oitako batian juatekuak dira Toledo't. Matias eta bere anai amerikanua. Ondo ibilli.

—Sortze garbiyari bere alabak guztiz bederatzi urren ederra egiten ari dira eta bukaera ederra izan dezan, asteazken, ostegun eta ostiralian, gabeko zortziyetan itz egingo du Aita Agirre, Josuren lagundikuak; uste da itz aldi oitara oste asko bilduko dala entzutera ain izlari bikañari; Urrengo larunbateko zortziyetan abestuko da "Eslava"-ren Agur, Erregina.

IZPAR BAT

—Nere belarrietara eldu da izpar bat eta da, erri ontako seme jaupari gazte Etxeberria't Pantzeska autu dutela asteroko "Argia"-ren zuzendari. Poztutzen gera bene benetan, eta Jaun altsuak lagun deizula orain artzera zuazen egin biar aundi orretan.

BURUNTZA.

ARRASATE (MONDRAGON)

ARANO JAUNARI BIOTZ-AGURRA

Egiteko 8,100 laurleko inguru batu dira guztiz ta lengo egunian Batzordia batu zan eta batu dan diruetatik zer egin erabiki zuten Ikastolan arlau bat eta gañetiko diruakin urteroko sari bi ikastola bixetan.

AITA MARTIN'EN ITZALDIAK

Ama Sortzez Garbia'ren bederatzi urrunera eta itzaldiak entzuten oste aundixa batzen da gaur amaituko dira ibildeun eder batekin.

"OR KONPON"-TRRAK

Deun Toma (Santo Tomas) bigarren egunerako egundoko "tamborrada" ikuzgarria gertau biar dutela eta gogor diardue lanian. Or konpontarrak parre eragiten mutillak direla eta errixa pozik dago ikusteko.

EUSKO LANGILLIAK

Albo errixetan batzar batzuek gertatzen ari dira. ¡Jo ortik badago biarra!

GEIXORIK

Geixorik dago Etxabe't. Kepa "Musibar" baserriko artzaña eta Santa Kruz apaiza ren gudari zintzua izandakua.

ERIOTZA

Bergara'ko Altos Hornos ausuan il da 80 urtekin Amozarrain'en alarguna. Atsekabian laguntzen dautsagu sendi danari G. B.

EZKONTZA

Laister ezkontzeko dira Agirrebeitia't Austin eta Urrutia't. Paustiñe neskatil liraña. Zorionak aurrez.

UDALA MENDI.

ARTEAGA (GAZTELU ELEX'BEITIA)

EUZKADI, ezta saltzen? Egiz esan leike Euskalerrian euskaldun egunerokuak geien saldu biar litzakezala; baña tamalez, alan ezta iazoten Arratia alderdi onetan beintzat. Aspaldian neure ogibidia irebaztiarren ainbat jira bira egin biar izaten dot Arratia alderdi onetatik, eta oin artian eldu nazau ardauetxe eta akeitetxeetan ezin izan dot aurkitu gure eguneroko maite maite au.

Eta zegaitik ete da au? Ez ete da EUZKADI eguneroko ona? Bai [illegible] argitalduten diran ainbat egunerokoetatik onenetarikua da izpartsuena, eta [illegible] geien irakurten dana, [illegible] Eta izanik egunerokorik onena izpartsuena Arratia alderdian gitxien irakurten dana, eta izanik izpartsuena eta [illegible] geien irakurten dana, erri onetan iñun saltzen eztana, eta bai beste egunerokoak.

Izanik gure eguneroko au danetatik onena [illegible] alegindu biar gara egunero geure errietan saltzeko, eta egunero ezin bada igandetan euki biar dogu, igandetako jaupa ostian erosi gura daunenari eskintzeko, eta onela egin ezkero Euskeldun askok ikasiko dabe irakurten erderaz eta euskeraz, eta iakingo dabe ludian igaroten diran ezta baida geienak Arratiakoak egin biar dogu eta euskeldun benetakorik erri onetan badagoz be bai.

"UPOKO ZERA4-RI

Irakurri neban azkenengo zure idazkian esan zenduna zuk esaten zendun "Bulkanotarra" Otxandio'tik etorririkoren bat dala antxe dirala bulkanotarrak eta. Ori ezta egin aiskide ni enaz Otxandiotik etorririkoa ez orixe ala erriko zerian... bizi dau edo gudari jantzi antzekoagaz ara ta ona ibilten dau zeragaitik esan gura dozu? ezagoz ondo, au be ezta Otxandiotik etorririkoa ezpabere Mañaritik baño nik entzun dodanez. Eta siñestu gura ezpa dozu itandu gura badozu "Mañariko" idazle sutsu eta zoliari onek ipiniko zaitu bide onian eta zuzenian.

Onegaitik edo au gora bera eztaukagu gora berarik nai Arratiakoa nai Txorierrikoa nazala eztau ardurarik. Euskalduna naiz ta eta guztiok alegindu gaitian euskaldun guztiak batasun bat egiten, eta aldogun guztia egin, eta erakusten, guzti aldabenak zarituko gaitu ta.

EGO AIXEA

Egunokin putz aundiek egin ditu ego aixeak eta emetik Zeanuri eta Bilbora dabillan tximist burdiok eztira ibili ganoraz

Baita aste onetan izan biar dabe etorteko Aldundiko inkiñeruak Areatza'tik (Villaro) Orozko aldera ebagiten dirazan Bitxabal barriagaitik, uste dogu alderdi aretako biztanliak ondo pozik egongo direala, baita geu be asko poztuten gara baserritar gixaxuok ori ta geianan biar izanian aurkitzen dira ta.

BULKANOTARRA.

GALDAKAO'TIK

BEDERATZI URRENAK

Beste urtietako eran, aurten be, oste (jende) asko batzen ixan dala, erri txadonan Neskuts alaztzua ta Orbanbagia'renak egin dira. Ama-orbanbakua'ren egunian jaunartze orokorra kgoxian da arratsaldian txaconkizun ederrak "erderazko" txonitza'gaz amaya emonik egongo dira. Erakutsi ederra galdakaotarrak emoten doguna.

NOR NAZAN ARDURAZ

Iñun diran oldozmenak egiten diñardube "Goitarra" nor ete dau jakin gurarik. Nik barriz, orrelako ardurarik iñok eztabelakuan izango ta egon naz neure artian, baña, ori olan dalarik beste biderik ez dot ixanzo ta, ezango dautsubet, irakurle erritar maitioi; errian jayo da azia naz, goialdian beti, mutil-zarra baso-bidiak ta basobak bakarrik ezagutzen dodazala, neure euskera edonun darabildana; nire bixi-lekuba goi-aldijan dot da bertako adiskidegaz erabilten dodazan barriketal ditxubakgaz jakiten dodaz be-aldeko izparrak ta naste. Bai dakixu ba noz nai basoban aurkituko nozuna ta barriketaldiak euki nai ba'dozuz nigaz euskeraz yardungo dogula.

Basoban bixi-arren, bai dot adiskide benetako bat berton, "Lapiko txikerr"-en semia, da beronekin barriketaldi ederrak eukiten dodaz igande ta jaiero ta euraen barri urrengo aldi baten ekarriko dot izparringira

IKERNE'RENTZAT

Aurreko idazkian neure poza agertzen neban zure laguntasuna etorri jakulako euskel-atal onetara ta aste bete buru dala ¡tamala da benetan "Ikerne" zure erabagija! Eskontzeko arduratzen zara, ori ondo deritxot, mutil-zarra ezpa-nintz, aupada egingo neban zure atartian, baña, orain artu dozun egaizkadan, erritik urrundu ete zarian nago. Dana dala, ziria ederra sartu dozu, geu lanian jarri erazo ta zeukalde bada-ezpadau. Gudaritzarako asartazun zurra erakutsi dozu, beñik-beiñ, zu lako agintariak ba'geunkoz geure arazo guztijetan... "Ikerne"-k betiko agur egin dausku, ta onegaz, eskontzen danian bere senarrak, bere ordez erabilten ba'dau lumia euskera-aldez, ikusiko dogu, ba, bitartian ez dogu ikusiko emen, euskel-atal onetan bere izenik. Arlo oni guztijok itziten ba'dautsogu, ¿zelan iraungo dau geure berbeiteak?

GOITARRA.

BERMEO

BETIKO DONOKI IRABAZTEKO BIDARAKUSLEAN JARRIKO BERTSUAK

Ludi onetan gertaten dira
Gertau bear ez diranak
Ez bageiñakez alkar biotzez
Maitatzen ondo dakigunak
Baña iroitsuak ta berekoiak
Diraz ludion geitxuak
Aiñ erein dagoz ondatzalliok
Dogula onura kalteak

Zenbat aldizki batak besteai
Doguz gaizto arrokeriak
Txakur katoak baño txarrago
Jarririk alkar musurkinan
Baña ez danok dan lez bagengoz
Sentzunez buruk betian
Ludi onetan ez-litz izango
Zorigaitzik ain bestian

Anaian ketzez gerana gaitik
Egiñ geñekez otzandu
Sorgiñ-kerizko ekandu orrek
Aztuta itxirik al badu
Al izanikan baztertu daigun
Lizun ez geñez ondatu
Bestela gero gizagaxotuz
Egiñ geinekez nazkatu.

Zapuzkeririk ez da bear ba
Bata bestearen kaltez
Gizonak beti izan bear dau
Beren izatasuna artez
Egiñ daigun ba luditar danok
Alkartasuna beñ aurrez
Batzandu ezkero naimen onian
Ludin bakez bizi geinkez

Baña biurrez eta gorrotoz
Biziztun antzez bagagoz
Elkaitz bizitza goibeltasunan
Sekula ez yaku paltako
Aleginez ba urrun bear duz
Ez geñez izan txarrago
Alperrik gero ibilli barik
Ezordu ta damuz danok

Berandututen onura barik
Geyenok dauz errukarri
Uste leitzeke eziñekoa
Itz dala eitxia alkarri
Onela bada luzerorako
Ikusko gera barragarri
Eta umetxuen begietan be
Negar malkuak ugari

Ikusten dago gure jaun ona
Gudatzalliak bai ondo
Illamu orduan ez degu eukiko
Jaunen aurrian gogape oso
Baldin ezpadu biozberaa
Alkarrentzako geyago
Eriotzako tamal orduan
Ez gera iñorbe "salbako"

Jaingoikuaren irakaskintza
Bakoitzak degu ondo argi
Alan da guztiz ondiñokarren
Gagoz aldeka txarrari
Ekiñian ba jarraitu beardu
Jaunak emango legeari
Bestela ez degu biyar edo etzi
Zeruko atiak zabalik

Samurtu gaisen bada guztiok
Umen errukiz ta maiten
Errurik gabe gisajotxuok
Dagoz gogoz "padezitzen"
Uste dot naiko eman dotela
Irakurliai aditzen
Eta geyago luzetu gabe
Beronegaz noye amaitzen.

TIBUROYE.

GERNIKA

SORKUNDE EGUNA

Urtearo lez, Gernikako kistartasuna bere Ama Orban-bakuaren eguna bear dan lotseaz ospatuko dau.

Goizean-goizetik jaunartze orokarrak bete-beterik ikusi dirá, amarretan meza nagosia Iruarrizaga Aba gurgarri Miren Biotzaren Semiaren sermoiaz, eta arratsaldian Ama Garbiaren ibildeuna.

OSTIKOKA

Gaur, igandez, arratsaldian jokatuko dabe "Zubigorri"-n txapeltzarako burrukan emengo ostikolariak eta Durangokoak.

PELOTA

Igandean Elgezabal eta Mondragones'ek Egia eta Txapasta'ri.

Astelenian: Peru eta Artamendik Txikuri eta Mondragonés'eri.

BATA TA BESTIA

Geure alkate jauna Bartzelonara joan zan atzo. Ondo ibilli.

—Balladolid'etik etorrita emen ikusi doguz Txakartegi't. Pantzezka'ren emaztia eta bere seme Jon, geure adiskidia.

KIROL-LANDA BARRIA

Atzo entzun gendunez, Lurgorri aldian solo batzuk erosi eta kirol-landa eder bat egiteko asmoa ei-darabil geure Udala.

Elitzateke txarto etorriko, "Zubigorri" landea, ibar-ibarrean dagola-ko edo, urterik geyenian uraz ondatuten egoten-da-ta

Pozik artuko leuke erriak orixe, egia balitz.

ETA...

Erri txiki eta bai andietan be, etxeren baten geixoa ilarriskuan dagoanian, auzokide guztiak an ibilten dira gora eta bera, zer-edo-zetan, gexoaren etxekoai lagundu nayan.

Onantxe ebilzan garai atan, lengo egunian aitatu gendun M'ren etxian.

Gexoa egoan gelako sartu-urtenak amarrik ezeukan, eta M. lo-zorroan-edo, iñoren itaun eta esanari jaramonik be egiten ezebala, egoan.

—"Iñor eztau ezagutu be egiten"—iñoen azkenengo ikusi ebenak

Arritu ziran etxekuak ori entzun ebenian, eta seme nagosienak, berez ori egiztu nayan, sartu zan isil-isillik gelara eta itandu eutsan aitari:

—Aita, ezagututen nozu?

—Ez ondo, seme, ez ondo—izan zan aitaren erantzuna.

Ain txarto be ezegoan, antza, gure M argia.

BELU-MENDU.

EIZA - IZTIA EDO ABERE TA PIZTIAK

Lezo'ko A. Agurgarria'rena Euskera irakasten dan ikastoletarako irakurgai polita. Bi laurleko'ren ordez. Amar ale baño geiago eskatu ezketiño, merkeago dira.

EUZKADI'ren banakolean salgei.

GETXO - NEGURI

"BELUMENDU"-RI

Adiskidea, lengo egunean ukondoa sartu gendun neure Asu'ko adiskideak eta nik esateagaz Sondike'ko Sangroniz auzoan eztagola ikurdi dun etxerik, ta eskerrak "Sokoa" zintzoari, dakigu orain, badagoala. Aor errikoa eztana bertokoari ikaskayak emoten erriko gauzatzaz. Eskerrik asko "Sokoa" zeuk emon dauzkuzun argitasuna gaitik.

Egia da, ba, barriro egin dot itz len izentauko neure adiskideagaz, ta esan daust "Sokoa"-k diñoana irakurrita gero, gomutan dala, badagola etxe bat Sangroniz goi-aldean "Goikoetxe" izena dauena, ta etxe orrek daukola "Sokoa"-k diñoan lako ikurdia, ta berberori daukola Sondike'ko udaletxeak.

Aor ba, gu gora-bera "Belumendu" adiskidea len lez zelan geratuko ziñean. baña orain apur bat geiago badakixu arazo orren ganean.

EGURALDIA

Oingoan badaukot ziyoa eguraldia dala ta zeozer eseateko.

Aspaldien aize indartsuak benetan egiten ditu, baña aurtengorik indartsuena eguen goizaldekoa izan zan.

Erri onetan kalte andiek egin ditu bai itxasoz ta baita legorrez be.

Itxasoz, eguen goizean itxasontzi batzuk eztu ta larri ebizan kai edo portura sartu ezinik, katalanda bat gorriak ikusita gero, naiko kalte andiakaz sartu zan.

Legorrez, ainbat etxetako talletuek eroan ditu leyar (kristel) asko apurtu be bai, ainbat eta ainbat zugatz atera, eta eztakit zer geiago ba, ain dira kalte andiek!

Jaungoikoari eskerrak ezpearrik esan iazon, baña notiñak bildur ikara galanta igaro eben eguazten gaubetik eguen goizalderarte.

NASKALDIA

Bartzelona'ko erakusketea ikusten joan dira Aretxabala't. Jon ("Erri") euskel-idazle zintzoa ta Aretxabala Bonipagi, euron emazteakaz. Ondo ibili ta asko ikasi.

SORTZE GARBIA'N BEDERATZI URRENA

Miren Neskuts Sortze Garbiari bederatzi urrena egiten yako andiro erri onetako txadon danetan, ta batez bere Deun Iñaki txadonan oso ondo egiten da, emeko jaupariak dakian lez gauzak egiten.

GAU GURTZALLEAK

Bait euki dabe lenengo taldekoak euren gurtasuna beti lez Algorta'ko Irukoitztarran txadonan.

TROKATIKO.

IB'RRANGELU'TIK

ERRIKO BERRIAK

Deun Ander jaiak ondo igaro doguz goizian notin asko eldurik ikurton Deuna artzen, eta jaupa nagosian be notin asko eguan, ez erritarrak bakarrik baita erbestear asko be eguan, eta jaupa abesturik erriko neskatilla azkarrak bi abosetara eta ederto abestu be, txonitza, jaupari batek egin euskun polito, sokondo askori ukuturik egi aundiak esanaz.

Oinguan zeozer egin yuek gaztiok meza ostien eta ederto egin be, alan biar be zan da neskatillak be alabakuak atara eutsiezan, ederto mutillak. Ez galtzen itzi aintxiñatik daukagun oitura on orreri geure asabena da ta.

Arrastian notina polito eguan baña, on onenian asarratu yakun eguraldia ta ne garrari eta garrasiari emon eutsan eta agur gure pleitak, asi zan jentia banatuten, eta kitu. Amaia emon eutson eta zorionak Deun Ander beste urterarte.

Baita Deun Kokille egunian jai ospatu eben gure abeslariak jaupa nagusi ta guzti, ondo pozik ibilli ziran eurak, egia da ¿zergaitik eziran egongo pozik ba euren egunа izanda? Meza ostian bazan saltua ugari ¿eta gero? gero cuadrilla aundia zan da eurak jagoteko be nor edo nor biar zan da ¿badakizue nor artu eben jabolari? ba artu eben geure txistulari eta abeslari dan Omar't. Ramon eta an juan ziran alai eta pozez amaiketakue artuten eta gero an izan ziran abestiak ugari "boga boga" ta abar olantxe maitiok, umore ona zeuekin dozuela egon beti.

Geure Ama Sorkundiaren bederatzi urrena asi da ta notintza aundia juaten da baña emakumiak danak, gisonezkorik bat edo bi baño ez, ¿ez ete dago gure errien orrek baño gizon geiago? ¡ay mutillak! esan lei emakumena dala bakarrik txadona, baña ez zeuena be bardin da, ta ez ikaratu, ez zaitue bialduko kanpora ta, eta ez azpien artuko zaitun bildurrik be euki ain bildurtiek bazarie onak gauzak, ¡gizonak eniek gue!

JOSU MARI.

LEGAZPI'TIK

EUSKOTAR

Ez izatia, edo Euzkadi'n arerio izatia bat dira, bi ta iru, edo iru ta bi bost diran bezelaxe. Baña sarri-askotan nabari detana auxe da: :iru ta bi bost dirala esatia, ez tala berdiña, bi ta iru esatiagaz. Au da askori autortzen ba-diozu alperra dala, su ta gar jararrik mutur beltza jarriko dizu Eta esaten ba-diozu berriz-adibidez diyotlan-zuri dala ez zaizu asarratzen.

Jakin egin biar—nik eztakidana—beraz, nola mintza.

Nik esango ba'nio bati, onela: adizak i, ez al dakik euskeraz mintzatzen? Zigurzigur nago, erantzunen zorrotza emango lirakela.

Baña, onela esango ba-nio, adibidez: adizak i, ez al dakik euskelduna naizela? Ala Kastelar antza artzen didak? Orduban ez liteke mutur-beltztuko; geyenez ere azurrak beltztu, eta azurrak zela begi-utsiz ezin ditzazkegun ikusi aor ezer ez.

Aitzgorri aldetik
aizotz datorkigu
itxasaldetik ekaitza
biyen bitarten
bizi geranok
ba-degu naiko lana.

ILLETAK

Ostegunian illobiratu zan Ibarguren'd Emeteri'n ama. Atseden begi bere gogoak Aloldun'an (Omnipotente) besuetan.

Laguntzen dizkiegu atsekabian sendi ta aidekueri, batez ere Emeteri lagun'ari.

AZOKAK

Gañian ditugu Zumarraga eta Urretxu'ko azoka ta jaiyak, moxala pranko ikusi bearrian gera, alegia.

"Arga" txirringillan ariñ-ariñ etorri nai ba-dok, bidera urtengo duat nik. Etorriko az ala?

ZAR-ZALE.

MAÑARI

YUAN-ETORRI

—Aramaiyo'ra yuan zan Lete't. Eusebi Yon.

—Elorriyo'ra Solaguren't. Nikodema.

—Bilbo'ra Goiti't Lone ta Ortuoste't. Yon mutikua.

—Aramaiyo'tik etorri zan Solaguren't. Lone andrea.

—Berriz'tik etorri zan Garitonandia't. Tiburtzi neskatillia.

—Igande arratsaldian etorri zan Abadiño'tik "Sindicato Católico" deitzen dautsoen bazkunatzaz itzaldi bat egiten Atutxa't. Kepa yauna, ango txaunburua.

—Eibar'era yuan zan Zugatzagoitia't, Bingen mutilla.

ERIOTZA

Igaro dan eguenian, Naparrua'ko erri baten biarrian ebillen lekuan lur pillo baten azpiyan artuta il zan Goiti't. Erroman emengo gizona.

Bere eriotz-izparraz tamala artu da, ba laster etxera etorteko ustian eguan eta.

Atsekabian laguntzen dautsogu bere alargun Ortuoste't. Damene ta seme-alabai; ta Goiko Yaunonak atsekabe garratz onetan eruapen deun bat emongo al-dautsoe.

Yaunak zeruan euki bei bere arimia

G. B.

GEIXUAK

Egunokaz makalik dago Labarrondo-Errotako Urien't. Pakunda.

Baita egualdi bada-ezpadakuak dirala-ta edo, ainbat jente dabil kikilimakal.

Danai arin osatzia opa.

IZURTZA'KO IZPARRAK

Barikuan Izurtzan, San Nikolas euren erri-zaindariyaren eguna ospatu zan.

Goizian, amarretan meza nausiya berbaka ta guzt'; ta arratsaldian Agurtza ta ibildeuna egin zan.

Baita arratsaldian tanboliñ-soñu alaiyak bazterrak alaitu zituan; eta dantzn nok egin be etzan palta izan. Antxiñeko dantza garbi ta ederrak egiten ¡eurek dira onak!

Izurtza'ko etxekoandra garbi ta maratzak be, euren erri-zaindari deunaren egunа ospatutiarren sekuleko "errekoziñak" egin zituezan.

Beintzat, "konbidau" izan ziranak, ainbeste gauza ederrez abuak gozotuta pozik etxeratu ziran.

Etxakee beingo-beinguan San Nikolas eguna aztuko.

• • •

Aspaldiyan aurkitzen da geixorik Beko-Torre'ko Anbortzi gizona. Osasuna opa dautsagu.

MAÑARIKO.

MIREN

Ave, amoenissimus et rationalis
Dei Paradisus (Sanct. Germani)

Agur, Miren aratza, aratzaren aratz,
Urtzi'ren sor gurena, Jaungoikoaren alatz,
Dezu, Neskutsoi,
Aita Bera zurekoi.
Izakietan beitzira zoragarriena.
Aitearen asmoan Semea laketu,
Zitu miresgarriki Goteunak apaindu,
Orra ba, Anderea,
Nola zaozin autua
Irukoitzan gogoan izaki garaia.
Elkarren gozarbidez, ezdute bearrik,
Iru Notin Deunek, elkarrez lekorik,
Ezin bertzerik,
Ola beita berez
Urtzi'k ongiak oro Beragan ukanez.
Goteunak eraginda, Aitaren txedean,
Goteunak erazia, gaudia jali zan,
Aiteak sortu,
Semeak eraztu,
Ilkiak ziren oro Urtzi'ren oldean,
Bai-da miresgarria Jaunaren oldea
Gaudietan aunitza, ortzietan edea
Sor-irazaten,
Bañan oro eusten
Ezda, ez, gutiagoko, Aren zuhurtzea.
Geigarriok bañoago gizona zen sortu,
Bere zoria, bañan ,ogenaz zapuztu,
Ta galduko zen
Arrunt, nuetsien,
Berriz Goiko maitea ezba'zen artetu.
Gizakien gaizkatzeko jautsi zen lurrera
Izadiaren Jabe ta Egile den Bera,
Josu opari
Zenetik eskeini,
Miren'en gize auta aitxa zen gainera.
Maite-maitatuz beti gizakiak oro,
Josu emanez gaine, oken ararteko
Pitzi zuen
Miren
Ederren, gozoen,
Auteneko doainak ekintzan egozten.
¡Irukotzain ilura, Urtzi'ren gozargu
Jaunak orotan gainoi zitu kutunendu,
Ta aintzin-aintzin
Arek zindun egin
Baratzetan naroena, lore ta usaintsu!
Onen esian barne, al laitezen lil,
Jaunak emanak zitun eskarrak ugari.
Ain zen joria
Azi baratzea
Non eta Bera beitzen laketu biziki.
Gozarguon ezlaien kutsagarrik ilun,
Jaungoikoak ertsi zitun atariak arrun.
Oletan, gotor,
Usainkitan izor,
Baratzeak liliak erruz eman zitun.
Nola biltzen beituen urmen inguruak,
Mendietan trumilka, iboie gardenak,
Orobat,
Miren'en ibarrat
Betudanik dariotzi zeruko ur biziak.
Gizak ezin datxika norainokoa den
Ornitu zen doaina, astetikan, Miren.
Ekikek, bañan,
Oner magalean,
Goitiko eskarrak oro direla kokatzen.
Ta txundigarriena, ezda, ez, eiki,
Diren doain pikuak erengan ixuri,
Geienekoa den,
Bikainen, gurena
Aren apalgoa denik orren miresgarri.
Apalak ditulakotz Jaungoikoa goraintzi,
Semean Ama laien zuen erabaki
Ta aren soina
Ain eman zuen txukuna,
Gaienik Jaun Berari al lakion abi.
Aintzindanikan ere, gauzen astirian,
Gozar zitzakon Jauna iduri xaian,
Jakob'en izarra,
Moisa'ren sasia,
Min-minez eguriki lege zaharrian
Josu maitagarria zenekoa gizatu...
Deus urtenagorik ezbeita gertatu.
An zagon Miren
Jaunari urbilen
Non eta neoiz ezdela gizkirik altxatu.

GURBINDO.

URKIOLA

BEDERATZIURRENA

Azillaren 30'ian asi zan Sorkunde guztiz Garbiaren bederatziurrena. Goizian goiz asi ziran Eleiza onetako ezkillak (kanpayak) joten emonik poztasun aundi bat Urkiola inguru guztiari; alan ba poztu gintzazan danok ezkillen otzetara ta gogoraturik zelan astesan Sorkunde guztiz Garbiaren bederatziurrena juan gintzazan danok geure Eleiza aundi-eder onetara, barrura sartuagaz batera poztu ziran gure biotzak ikusirik gure Ama maitia eguala altara nagusian loraz, argiz, ta edertasunez beterik, alan azi zan zazpi terdietak inguruan jaupia txauneskin (organu) ta guzti, jaupa bitartian abesturik oso abesti ederrak; baita illuntzian be Agurtza Deuna'ren ondoren abestuten izan jakoz geure Ama maitiari oso abesti gozo gozuak; onek elezkizunok egunero egiten izan dira, ta geur Sorkunde guztiz Garbiaren eguna emongo jako bederatziurren oneri amaia ospatasunik aundienagaz ta poztasunez beterik.

Baita zorion-ugariak Urkiola'ko Mariaren alabari alegindu diralako aiñ ederto apainduten geure Zeruetako Ama, loraz, argiz, ta edertasunez, urte askotan olantxe.

EZKONTZA

Igaro dan eguenian betiko alkartu dituz Urkiola'ko Eleizan Lezama'ko txaunburu jaunak, Donabeitia't. Jon Joseba, Olabarrieta't. Kesare'gaz. Zorionak.

MAÑARI'KO ARTZAIÑAK

Juan dan egun baten
Urkiola gañian
Mañariko artzaiñak
Emendik zirian
Ardi mordo eder bat
Saltzeko asmuan
Baita eroslaria
Agertu jakian
Tratua zarratu ta
Igez ei utzian

Eroslari zintzuak
Esan ei utzian
Itxaron egi zue
"Otele"-en ertzian
Laster etorriko naz
Betik gorantzian
Dirua batera ta
Ardiak bestera
Bakotxak artu daigun
Bidia etxera.

Egonian egon da
Egonak egona
Baña eroslaria
Agiri ez ona
Nun ¡arrayo! ete dok
Gure diruduna
"Otela"-ren ertzian
Aizia bez ona
Esanaz alkarreri
Goyazan barrura.

Urkiola gañian
Egun bat ederra
Mañari'ko artzaiñak
Igaro ebena,
"Otela"-ren ertzetik
Sarturik barrura
Ederto bete eben
Euren gilborra
Estukurarik gabe
Igaro eguna

Etxerutz juateko
Eldu zan ordua
Baña eroslaria
Agertu ez ona
Bidia artu eben
Artzaiñak etxera
Esanik alkarreri
¡Auxe dok eguna!
Beste onangoxebat
Agertuko alda.

URKIOLAKO.

ZEANURI

SORKUNDE GARBIAREN EGUNA

Andikiro ospatzeko ustea dago erri onetan elexeak oraindala 75 urte ziñesteko egitzat emon ebana Elexatean izanik lenagoko aldietatik gure zineste biziaren yagola ona alan ikusten dira, auzune guztietan basotxadona, da auron zaindariari urtero egiten diran elezkizun ospetsuak. Gure oitura on da izkuntzeak yagon ditu emengo mendietan, ziñistea edo fedea da bertotik urten dabe orrenbeste elez-gizon lekaime ta abar...

Da alan izanik zela nezta ospatuko andikiro Sorkunde Garbiaren'ren yai zoragarria?

Deun Ixidor elexan bederatzi urrunean dabil egunotetan da berton itzalkiro egiten dituz itzaldiak Unzueta't. Fortunato jaupari jakitunak. Baña zelan? Ezin leike entzun barik siñestu be euskeraz ain txukun da yakituri andiagaz egiten dituzan itzaldi zakonak.

Larunbatan gau-gurtzalle tanda biak daukie euron gabeko elezkixuna.

Elexa nagosian Andra Mari elexan gertetan dabiz igandeko yairako gauzak Maria'ren alabak be lora giñen ta abar...

Da egun orretan udalak be egingo dau berak aldabena goralduteko yaya; da apaingarriak ipiñi beitez etze guztietan.

Igandean goxean jaun artzea batzar edo kongregasiño guztiak da eskoletako umiak.

Amarretan jaupa nagosi abestua txauneskindari izanik Andekoa't. Jon jaupari jauna itzaldia Arana jaunak.

Arratsaldean elezkizun ospetsua itzaldia Unzueta jaunak ibil-deuna ondoren.

Andra Mari elexatik urten da. Onan:

1. Ezpatadantzariak.
2. Erugarren-ordenakoak.
3. Koldobikatarrak.
4. Sorkunde Garbia loraz ingurututa.
5. Miren-Alabak
6. Marin-Biotzekoak.
7. Apostoladu edo Otoi-Bialguntzakoak.

Ibil-deunak yarraituko dau Urraburu'n zeyara abesturik bideak yagokozan abestiak euskeraz. Da eldurik bertara da bildurikeri dana bertan erri onetako seme zintzo batek egingo dautso erri guztien aldetik Sorkunde Garbia gure amari oparia, orain bost urte egin zana barriziturik da ondoren amaya omonik Deun Ixidor elexan.

ERIOTZA

Azkarraga'ko auzunian il da aste onetan Angoitia't. Dominga (Zuluaga'ko Anton artzañen emaztea). Benetan lenagoko erako andra ixeratxuduna da bere eskapolotean amaikatxo lenagoko soñeko zapi ta abar ondo gordeta euki ebazana da euskel yayetan be iñoz pozik emon dauzkuzena Goiko Jaunak bere atseden tokira daroagu eusko andra ereduak (G. B.) da otoi egin daigun bere gogoaren alde.

AXE BARRABANOK

Bai, axe indartsuak benetan kaltekorak dira suagaz be ardure andia euki bear da ze etze bat suak artu ezkero eztago amatetarik. Baña su barik be emen batean bestean kaltean egin ditu Altzuzteko ikastoletan da Ipiñekoetan ume ta irakasleok bildurtuta egon dira da kalte enbat be egin dautsue tella ta abar. Baita basetxe etan batzuetan leyoak zabalik atrapaute lo geldiko ormak luzeratu biar izan ditu batzuetan eskribeu enbat il-ete da ba? ze emen axe indertsue dabillenean ori iñoz: entzu dot.

IDAZTIAK LIBURUAK

Orain bearrak baserrietan bultzan direala esan leike. Da adimena argituteko yaki apur bat buruari be emon bear yako. Gau luzeetan orain negu aldian tximist argiak be toki edo leku askotan ba dira ta, agurtza rezau ondoren irakurgayak ba'dagoz.

KISTAR IKASBIDEA

Aita Domingo Dima'ko seme ospetsuen bizitza Gorostiaga abade jaunak euskera errazean idatzita santuen bizitza laburra.

Goi izpiak olerkidun idaztia.

Santa Cruz apaiza-abadearen bizitza.

PERNANDO AMEZKETARRA

Da laster argitaltzeko da Aita Larrakoetxea Erroma'n dagoan erri onetako seme argiak doixeratik alemanetik biozturiko 40 edo 50 ipuin Grimnen anayenak idatzi edo liburu baten guztiz txukun argitaldu direnak, oso politak ia ba oneik danok salgei dagoz emen, azkenengoak argitaltzen diranean.

EGIA DA

Gaurko gaztediak zaletasun gitxi daukala irakurten Kirol zaletasun geyegia, baitez be ostikolarien kirola bearrekoa ta "larra dana txarra" da ondo da zeozer yakiteko be irakustea, baña idazti da izparringi onak.

BASERRITAR BAT.

AGENCIA FUNERARIA DE LA SANTA CASA DE MISERICORDIA

✝

EL HERMANO

EXUPERIO (ESCUDE)

(De la Instrucción Cristiana, director del Grupo Benéfico de la Junta de Protección a la Infancia)

(R. I. P.)

Descansó en la Paz del Señor en el Grupo Benéfico de Protección a la Infancia ayer, 7 de diciembre de 1929, a los 75 años de edad

Habiendo recibido los Santos Sacramentos y la B. A. de Su Santidad

LA JUNTA DE PROTECCION A LA INFANCIA, LA COMUNIDAD DE LOS HERMANOS DE LA INSTRUCCION CRISTIANA, LOS HERMANOS DEL FINADO (AUSENTES) Y DEMAS PARIENTES

SUPLICAN a sus amigos se sirvan encomendarle a Dios en sus oraciones y asistir a la conducción del cadáver, desde la casa mortuoria hasta la plaza de los Auxiliares, para su traslación al cementerio de Vista Alegre, HOY, DOMINGO, a las DOCE Y MEDIA del día, y el LUNES, 9, a las OCHO de la mañana, a los funerales que en sufragio del alma del finado se celebrarán en la iglesia parroquial de San Nicolás de Bari, de Bilbao.

El duelo se recibe: para la conducción del cadáver, en la casa mortuoria, calle del Cristo, número 13 (Grupo Benéfico), y para los funerales, en la iglesia. *(No se reparten esquelas.)*